



CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

SO!

natura-ondarea patrimoine naturel

Euskal Herriko natura-ondarea itsaslabarretan irakurtzen ahal den 50 milioi urteko historia da, 3 500 kilometro ibai, 44 kilometro itsasertz, 60 000 hektarea oihan, 68 landare-espezie babestu. Zaindu behar dira. Alderdi antropologiko bat ere bada: partekatzen dugun eta sortzen laguntzen dugun ingurumenaren aitortza kolektiboa.

DIAGNOSTIKOA

- Euskal Herria planetako bioaniztasunaren 34 "**puntu beroetarik**" da, bere **klimari** eta kokapen geografikoari esker. Alabaina, **itsasertza, mendiak, pentzeak, berroak** eta ordoki hezeak elkartzen dira, hemen.
- Natur ondareak **higadura eragile handiei** buru egin behar die eta **gizarte aldaketak** biziki pairatzen ditu: kutsadura, hezeguneen desagertzea, baliabideen gehiegizko ustiaketa, hirigintza, klima aldaketa...

DESAFIOAK

Euskal Herriaren nortasunaren zutabe baten atxikitzea

- Natura-ondarea Euskal Herriaren nortasunaren eta erakargarritasunaren osagai oso bihurtu.
- Natura-ondarea ezarri antolaketa- eta plangintza-politika publikoen maila guzien erdigunean (Departamendua, Eskualdea, Herriak, Hirigune Elkargoa).
- Behaketa, identifikazioa eta ezagutzaren partekatzea denboran segurtatu, jende guzia ezagutza horretaz jabe dadin.



GURE PROPOSAMENAK

Partekatzea eta transmititzea

- **Eragileen sarearen** sendotzea, informazioaren sortzeko, antolatzeko eta zabaltzeko, eta **tokiko batzorde zientifiko** bat plantan ezartzeko.
- Parte-hartezko zientzien garatzea eta herritarren inplikatzeko.

Desafioen integratzea

- Natura ondarea lurralde antolamenduaren oinarri bilakatzea.
- Zaintza ekintzak kolektiboki planifikatzea eta koordinatzea.
- Politika publikoen ebaluatzea eta ekintzen lehentasunen eguneratzea.

Jendea bere erantzukizunen hartzera sustatzea

- Laborarien laguntzea.
- Turismo alorreko eragileen eta haien bezeroen laguntzea.
- Natura ondareari lotuak diren sare berrien sortzea lagundu (laborantza, ur kirolak...).

Loturaren egitea

- Kultur eragileen eta natura-ondareko eragileen arteko lankidetzaren berrien sortzea.
- Natura-ondarea kontatzen duten tresna pedagogikoen pentsatzea.
- Natura-ondarearekin lotu sorkuntza artistikoaren sustatzea.





CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

Garapen Kontseiluak lurraldeko bizitza ekonomiko eta sozialeko 400 eragile baino gehiago biltzen ditu: herritarrak, erakunde sozio-profesionalak eta Euskal Herriko elkarte adierazgarriak.

Garapen Kontseiluak lurraldeko desafio handiei buruzko eztabaida publikoan parte hartzen du, eta bere ikuspegia eta proposamenak ekartzen ditu lurraldearen garapen edo antolaketa gai nagusiei buruz.

Euskal Herriko gobernantzaren eragile nagusietarik izan da 1994tik 2017ra eta, 2018az geroz, Euskal Hirigune Elkargoak bere politika publikoen laguntzeko eginkizuna eman dio. Ideia-laborategia da; gizarte-berrikuntzaren zerbitzura dago eta lurralde-dinamika berriak sortzen laguntzen du.